

# Whatsart\_DSS2016EU

Laugarre atalaren memoria

2016ko Abendua



# AURKIBIDEA

<b>AURKIBIDEA.....</b>	<b>2</b>
<b>SARRERA.....</b>	<b>3</b>
<b>GIZARTERATZE FASEA.....</b>	<b>5</b>
<b>GARATUTAKO SAIOAK .....</b>	<b>7</b>
<b>ERABILITAKO BALIABIDEAK.....</b>	<b>12</b>
Espazioak .....	13
Komunikazio tresnak.....	13
<b>ONDORIOAK .....</b>	<b>14</b>

## SARRERA

Ondorengo lerroetan, WHATSART proiektuaren gizarteratze fasearen inguruko txostena aurkezten dugu. Dokumentuaren egiturari dagokionez, lau atal nagusitan banatzen dira:

- Gizarteratze fasea
- Garatutako saioak
- Erabilitako baliabideak
- Ondorioak

# GIZARTERATZE FASEA

WhatsART hasierako proposamenean planteatu bezala, proiektuaren fase honek WhatsART prozesua eta izandako emaitzaren sozializazioa egitea du helburu. Talde motorean egondako gazteek *Fanzine* bat ekoiztea erabaki izan zuten sorkuntza fasean matxismoa salatze, hedabideen manipulazioari aurre egiteko eta pertsonen mugikortasun askatasuna aldarrikatzeko. Intentzioa zen artefaktuarekin erlazio izan zezakeen pertsona orok pentsatzeko tarte bat hartu ahal izatea beren ideiak ere *Fanzinetan* gehitzeko.

Helburu honekin, eta hasierako proposamenean adierazi bezala, 2017 urtean zehar Gipuzkoako udalerrri ezberdinetan garatzekoa zen proposamen bat planteatu izan genuen esposatze itinerante batekin.

DSS2016UE-ko arduradunekin hitz eginda, hasierako planteamendua aldatzea erabaki zen eta 2017rako utzi beharrean, 2016-ko azken lau hilabetean garatuko zen proposamen berri bat planteatu izan genuen. Egitarau berri honek hiru saio ireki planteatzen zituen Tolosa, Irun eta Eibarren larunbat goizetan Easo plazan bizi izandako dinamika errepikatzeko baldintzak bermatuz.

Proposamen honen lehen saioa Tolosako gazte topagunean egin zen eta ez zuen guk espero izandako arrakasta lortu. Oso jende gutxi gerturatu zen eta gerturatu zirenak ez zuten interes handirik jarri proiektuan ezta *fanzinetan* beren ideiak gehitzeko. Gauzak honela eta hurrengoko saioetan egoera berdina ez gertatzeko, egindako planteamenduan zein baita aldaketa egin ziren.

Azkenean gaztelekuko erabiltzaileei eta herrietako beste gazte eragileei zuzendutako saioak garatu izan ditugu Gazteleku irekierako orduetan. Honela parte hartzaileak izatea bermatzen genuen eta baita ere saio proiektuan interesa izan dezakete *target* bati zuzenean bideratzea.

Gizarteratze fasean, eta ondoren adieraziko dugun bezala, hiru saioa berri garatu izan dira genituen Eibar, Tolosa eta Irungo gaztelekuetan.

# GARATUTAKO SAIOAK

Gizarteratze fasearen barruan landu izan diren saio guztiak, honako helburu eta egiturak jarraituz landu izan dira.

## HELBURUAK

- \* DSS2016EU aurkeztea
- \* WhatsART prozesua ezagutzera ematea
- \* Prozesuan bizi izandako fasean adieraztea
- \* Artefaktua ezagutzera ematera
- \* Artefaktuan lanak egiten jarraitzea

## SAIOAREN EGITURA

- \* DSS2016EU Aurkezpena
- \* WhatsART Aurkeztu
- \* Laburpen bideoa
- \* Galderak eta zalantzak
- \* Erronken inguruko solasaldia
- \* *Fanzineak* landu



## Lehenengo saioa

### **EIBAR**

## Parte hartze kopurua

12 / 30

## Data

2016ko Azaroak 10

## Ordutegia

17:30 – 19:00

## Deskribapena

Gehienak 15 urte baino gazteagoak ziren mutilak ziren. Beraiekin akordio batera heldu ginen, beren denboraren 10 minutu hartze genituen proiektua azaltzeko eta proiektuaren bideoa ikusteko. Behin denbora pasata haiek erabakiko zuten gurekin jarraitu ala ez.

Egoera honetan, gazteek galderak egiten hasi izan ziren eta elkarren arteko solasaldia mantendu zuten hamar minutuak pasata ostean. Begiraleek ere galderak egiten lagundu zieten proiektuz informazio gehiago jaso ahal izateko. Solasaldia bukatzean gazte baten Fanzinean bere ideia eta iritziak gehitu izan zituen

Begiraleek beraien kabuz asteburuan errepikatu izan zuten dinamika erabiltzaile gehiagorekin eta bertan beste gazte pare batek gehitu izan zituzten beren ekarpenak *fanzinetara*.

## Lehenengo saioa

### **Tolosa**

#### Parte hartze kopurua

15

#### Data

2016ko Azaroak 24

#### Ordutegia

17:00 – 18:30

#### Deskribapena:

Bertan izandako taldea neska eta mutilen arteko parekotasuna zeukan eta jatorri ezberdineko gazteak bildu izan ziren. Begiraleak ere gogotsu parte hartu zuten proiektuaren aurkezpenean eta talde motorean egondako bi gaztek egon ziren beren esperientzia partekatzeko.

Kasu honetan ere gazteek gogotsu hartu izan zuten proiektua eta azalpen guztiak jaso ostean bere ekarpen propioak egiten hasi ziren. Kasu honetan, neskak izan ziren ekarpen gehien egin zituztenak eta

Begiraleek kultur aniztasuna lantzeko proiektu egokia zela adierazi ziguten.

10

## Hirugarren saioa

### Irun

#### Parte hartze kopurua

14

#### Data

2016ko Abenduak 14

#### Ordutegia

17:30 – 19:00

#### Deskribapena

Azken gizarteratze fase saio honetan WhatsART proiektuan parte hartu duten bost Irundarren parte hartzea izan genuen. Kasu honetan, saioaren planteamendua aldatu izan genuen eta haiek izan ziren prozesuaren azalpenak ematearen arduradunak. Honek gazteek proiektuarekiko hurbiltasun gehiago sentitzeko aukera eman zuen eta modu azkarrago batean hasi ziren hizketan proiektuan parte hartu izandako gazteekin.

Gazteek zuzenean hasi ziren gazteek liburuxkatan beren erronka eta interesak adierazten.

11

## ERABILITAKO BALIABIDEAK

## Espazioak

Proiektuaren gizarteratze faseak udal ezberdinetako gazteria teknikariekin aurretiaz geneuzkan harremanak erabili izan ditugu espazioa lortzeko. Gehiekin gogotsu hartu dute berriro ere proiektua beren espazioetan garatzeko aukera eta Irunen data jartzeko hasierako arazoak kenduta nahi izandako egun eta ordutegiak erabiltzeko aukera eskaini digute.

Fase honetan Whatsart proiektua hurrengo herrietatik pasatu da:

- GAZTE TOPAGUNEA.**TOLOSA** [Lehen saiakera]
- GAZTELEKUA.**EIBAR**
- GAZTE TOPAGUNEA.**TOLOSA**
- MARTINDOZENA GAZTE LEKUA.**IRUN**

## Komunikazio tresnak

**Kanpora begirako komunikazioari** dagokionez, komunikazio gerturatu garen udalen bitartez landu izan da.

**Barnera begirako komunikazioari begira**, talde motorean zein laguntza taldean parte hartu izandako gazteei gizarteratze faseko saioren berri eman zitzaion. Talde motorean parte hartu izan duten gazteak azaldu izan dira gizarteratze faseko saioretan Eibarko gaztelekuan izan ezik.

## ONDORIOAK

Gizarteratze fasea aldaketa gehien izan duen fasea izan da, alde batetik zaila egiten zelako hasieratik eta emaitza ezagutu gabe bere gizarteratzea planteatzea. Bestetik aurreratu behar izan delako 2017 urte guztiko planteamendu batetik 2016-ko azken lauhilabetekoko proposamen batera. Fasean egindako aldaketa guztiak eginda, aurreko orrialdeetan azalduta, gizarteratze fasea labur geratu da. Oso argi agertu da proiektuak eta gazteek egindako lana erabilera anitzak izan dezakeela hezkuntza munduan eta baita ere gazteekin lantzeko zailak izan daitezkeen gai eta egoerak. Denbora gehiagorekin eta hezkuntza munduarekin erlazioak estutuz material oso interesgarria izan daiteke gazteekin landu ahal izateko.

Gizarteratze fase honek, WhatsART proiektu arrakastatsua izan dela baieztatu digu eta nahiz eta parte hartze aldetik espero baino baxuagoa izan jasotako iritzi eta balorazio guztiak oso positiboak izan dira.

Aipatzekoa da talde motorean parte hartu duten gazteen inplikazioa saiatu izan direlako gizarteratze faseko saioetara etortzen. Guztira zazpi gaztek parte hartu izan dute gizarteratze faseko saio ezberdinetan.

# Kultiba



**KULTIBA Koop. Elk. Txikia**

[www.kultiba.net](http://www.kultiba.net) // [www.kultiba.org](http://www.kultiba.org)  
[info@kultiba.net](mailto:info@kultiba.net)

+34 94 673 06 52

San Miguel kalea, 8-1º izq.

48.340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)